



227. zenbakia

MARTXOA 2023

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Ez dut askorik eskatzen *Miquel Martí i Pol* (No demano gran cosa)

Ez dut askorik eskatzen:
ahotsa uzkuritu gabe hitz egin ahal izatea,
makulurik gabe ibiltzea,
baimena eskatu beharrik gabe amodioa egitea,
araurik gabe paperean idaztea.

Edo, gehiegi badirudi:
ahotsa uzkuritu beharrik gabe paperean idaztea,
araurik gabe ibiltzea,
baimena eskatu beharrik gabe hitz egitea,
makulurik gabe amodioa egitea.

Edo, gehiegi badirudi:
ahotsa uzkuritu beharrik gabe amodioa egitea,
makulurik gabe idaztea,
baimena eskatu beharrik gabe ibiltzea,
araurik gabe hitz egin ahal izatea.

Edo, gehiegi badirudi...



Hautatu

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

Km

komunikazioa

Esan Erran Irratia
107.9 FM



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Nabar, Denok bat elkarte, Edurne Gerendiain, Jule Goñi eta Laia Llop.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Lanzko ihoteak izan ziren otsailaren 19tik 21era. Argazkiaren egilea: Amaia Urdaniz.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 14an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Nafarroako EKO ziurtagiria*

07

Ingurumena. *Haltza*

08

Euskara erreza. *Erleak*

10

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkarte*

12

Albisteak.

16

Zer jan, hura izan. *Laia Llopekin*

20

Erreportajea. *Transmisioa, antzerkiaren bidez*

22

Berezia. *Ameriketako berriak ez dira onak*

23

Elkarrizketa. *Skabidean*

24

Aspaldiko Kontuak. *Goio Urdanitz, Aritzuko semea.*

26

Ardo Frexkoa. *Segi beti aitzina (II)*

27

Herrian bertan, zergatik ez. *Apeztegi berri*

28

Kirola. *Mikel Retegi txirrindularia*



30

Zer ikusi. *Martxoa*

32

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Protestak, Nafarroako Gobernuak ekoizpen ekologikoaren inguruan ateratako lege dekretu berriaren aurrean

Abenduan protestan ikusi genituen Nafarroako sektore ekologikoko ekoizleak, elkarte ekologistak, sindikatuak eta beste hainbat eragile. Gobernuak, gaur arte ekoizpen ekologikoaren ziurtapenean zegoen kontrol agintaritza bakarra –CPAEN/NNPEK Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluaren esku zegoena– ezabatu eta ziurtapenaren pribatizazioari ateak ireki dizkiola salatu zuten bertan. Gaian sakontzeko, Kontseiluko kideen eta eskualdeko ekoizle ekologikoen hitzak dakarzkigu gaurko erreportajera.

“Dekretu honi ez” lelopean, Landa Garapen eta Ingurumen Departamenduaren atarian egin zuten mobilizazioa, eta Nafarroako 50 erakunderen babesak jaso zuen deialdiak. Azaroaren 16an egin zuen gobernuak dekretua aurkezteko agerraldi publikoa, eta segituan jaso zituen sektoreko eta sektoretik kanpoko kritikak. Baina, zein aldaketa dakartza zehazki Nafarroako Gobernuaren dekretu berri horrek? Zergatik sortu du kontraktotasuna gizarteko hain esparru zabalean?

Dekretu berriaren arriskuak

Mirian Otxotorena artzaina da duela zenbait urtetik NNPEKko lehendakaria, eta dekretu berriari egiten dioten kritikaren oinarriak azaldu zituen Argia aldizkariko elkarrizketan. Laburbilduta, ondoko puntuak azaldu zituen bertan:

- NNPEK izandagaur arte Nafarroako ekologikoen ziurtapenean kontrol-agintaritza zuen autoritate bakarra, eta kontrol-agintaritza hori, gainera, eredu publikoan egiten zen. Bada, dekretu berrian Kontseilua ez da autoritate bakartzat hartzen,

Ekologikoen ziurtapena enpresa pribatuei irekitzearen arriskuaz ohartarazi dute adierazpenean

bestelako entitateei ere ateak zabaltzen dizkie ziurtapenean jarduteko

- Entitate gehiagori ere ateak zabaltzeaz gain, kritika nagusienetako bat da ziurtapenaren izaera publikoaren kontra doala dekretua. Izan ere, kontrol-agintaritzarako eskumena entitate publiko nahiz pribatuei zabaltzen zaie. “Pribatuei ere marko juridikoa ematen die dekretu berriak kontrol ekologikoan jarduteko”. Ziurtapena pribatizatzearen arriskuak nabarmendu dituzte mobilizazioetan

- NNPEKk orain arte bazituen ziurtapenetik haragoko bestelako eskumenak ere: promozio lana, sustapena, formazioa, aholkularitza, proiektuei akonpainamendua eta laguntza ematea, eta beste hainbat. Bada, dekretu berriak, promozio eta ziurtapenera soilik mugatzen du Kontseiluaren jarduna, gainontzeko alorrak alde batera utziz



60 erakundek bat egin dute NNPEKren adierazpenarekin. Irudian, Iruñeko mobilizazioa



Josean Iturralde, Ekollaondo (Goldaratz) Arrautza eta ahuntz-gazta ekologikoen ekoizlea

2003an hasi zen abeltzain lanetan Iturralde, etxekoei jarraipena emanez. Lursailak ekologikoan jarri zituen hasiera hartatik, baina gerora, 2011n, oilategia araudi ekologikoan jartzeko pausua eman zuen. Momentu hartan, oilategia eta lursailak ez ezik, abereak ere ekologikoan zertifikatu zituen, NNPEKrekin. "Ekoizpena modu jasangarrian egiteko helburuz egin nuen aldaketa, eta ekologikoan ziurtatzeko etorkizunera begira desberdintzeko aukera ematen zigulako ere bai", azaldu du.

"Nafarroan NNPEK entitate publikoaren bidez egin dugu orain arte ziurtapena, eta haiek egiten zuten araudia: animalia eta terreno kopuruari, animalia bakoitzarentzako zenbat terreno duzun, animalien elikadurari eta beste hainbat punturi erreparatzen diote", dio. Ziurtapenari begirako protokolo oso bat du Kontseiluak, Iturraldek azaltzen duenez, eta ekoizle bakoitzak ezarritako irizpideak betetzen dituela ziurtatzeko analisiak eta kontrolak egiten dizkiete. "Zure produktuen eta lurren analisiak egiten dituzte, esaterako, eta analisi horiek ausazkoak izanda ere, praktikan ia urtero pasatzen ditugula esanen nuke", gehitu du.

Ziurtatzeko eskumena erakunde pribatuei zabaltzeak kezka sortzen dio Iturralderi ere: "Azkenean, esan dezakegu erakunde publikoen kasuan kontua neutralagoa dela, eta neutralitate horretan, produktuak egokiago ziurtatuko direla pentsatzen dugu. Pribatuen kasuan, jokoan sar daitezke beste interes batzuk, azkenean pribatu bati ordainduko geniokeelako guk gure produktuak ziurtatzeko, eta

hor interes amankomunak sor daitezke... interes amankomun horiek ziurtapena hain garbia edo hain zuzena ez izateko arriskuak dakarte". Iturraldek nabarmendu duenez, berea bezalako proiektu txikien kasuan hainbesteko aldaketarik ez luke suposatuko hasiera batean, baina ekologikoen munduan dauden enpresa handien kasuan, ziurtatzeko eskumena duen entitatearen 'independentzia' galera ekar lezake.

"Jasotako kritiken aurrean, Nafarroako Gobernuak dio haiek ez dutela enpresa pribatuak sartzea jaso dekretuan, eta nolabait, mamuen kontra ari garela. Egia da dekretua begiratzuz gero, bere horretan ez dakarrela eskumena pribatuen esku uztearena, baina kontua da, etorkizunera begira ateak irekitzen dituela. Ate horiek behin irekiz gero, zirrikitu horretan beste normatiba batzuk sar litezke", amaitu du.



Josean Goldaraz, Goldarazko etxaldean ▲

Pribatizazioaren arriskua

Dekretu berriari egindako kritiken artean indar handiena hartu duenetakoa da ziurtapenaren pribatizazioaren kontuarena. Izan ere, enpresa pribatuak ekologikoen ziurtapenean sartuz gero, interes orokorraz gain, bestelako interes propioak ere jokoan sar daitezke, ziurtapenean zuzenean eraginez. "Beste zenbait tokitan justu kontrako noranzkoan ari dira aldaketak ematen. Aragoi, esaterako, pribatuei ateak itxeko dekretua atera berri dute, ziurtapenean eredu publikoaren eta pribatuaren arteko bizikidetzaz ez delako batere positiboa izan", zioen Otxotorenak.

1996an sortu zen NNPEK, eta geroztik 800 operatzaile baino gehiagori egin dizkio ikuskapenak, eta urteotako esperientziak eta emaitza onak kontrol publikoko agintaritzabakarra izaten jarraitzeko nahikoa berme ematen dizkiela aldarrikatu dute adierazpenarekin bat egin duten elkarte eta taldeek.

Bestalde, Otxotorenak Argiako elkarrizketan nabarmendu zuenez, NNPEKren funtzionamenduan ere badago beste gauza bat kontuan izatekoa: Kontseilua bera nekazarien esku dagoen organoa izatea, organo demokratikoa. "Baina, aldi berean, administrazioaren kontrol zorrotzak ere pasatzen ditu, ziurtapeneko arauak betetzeko", nabarmendu zuen.

**1996an sortu
zenetik 800
operatzaile baino
gehiagori egin
dizkio ikuskapenak
NNPEKk**



Ekoizpen ekologikoa

Leire Iribarren, Sagardikoetxea (Oskotz) Sagar-zuku ekoizlea

Bertako sagar barietateak landatu dituzte Oskotzen Sagardikoetxeakoek, sagar-zukua eta sagardoa egiteko asmoz. Momentuz, sagar-zukuarekin ari dira, eredu ekologikoan eta zigiluarekin lanean. "NNPEKrekin izan dugun harremana ikaragarri ona izan da hasieratik. Formazio aldetik lan handia egiten du Kontseiluak, ekoizpena jartzea erabaki genuenean harremanetan jarri ginen haiekin, eta esperientzia oso ona izan da. Bestalde, azpimarratzekoa da oso zorrotzak ere badirela: haiek tekniko bezala laguntza handia eta informazio asko eman digute, beste tokietan egon diren antzeko esperientziak azaldu dizkigute, etab. Baina, aldi berean, oso zorrotzak dira haien lanean: urtero berrikuspenak egiten dizkigute, produktuak daramatzate analisiak egiteko..."

Ekoizpenarekin hasi direnetik Espainiako estatuko beste zenbait

zonaldeetako ekoizleekin harremana dutela azaldu du Iribarrenek, eta han-hemen topatu dutenaren aldean, Nafarroan Kontseilutik egiten den lana goraiatu du: "Beste komunitateetako ekoizleekin hizketan, ohartu gara Nafarroan ekoizpen ekologikoaren egoera oso ona dela, oso ongi informatuak gaudela, tekniko eta formatzaile oso onak ditugula", gehitu du.

Ez du oso ongi ulertzen Iribarrenek zer dela eta etorri den dekretu aldaketa hau gobernuaren partetik. Zera gehitu du: "Politikariak ez dira teknikariak, eta ez dakit zergatik jartzen duten zalantzan ongi funtzionatzen duen organismo bat. Nik ez diot organismo horiek hobetu behar ez direnik, agian egia da dekretua berritzeko beharra badagoela zaharkitua gelditu delako, baina eskatzen duguna da NNPEK eta sektorea kontuan edukiz egin behar direla aldaketa horiek", amaitu du.



Sagardikoetxeako familia, sagar bilketan

Mobilizazioa babestu zuten eta dekretu berriaren aurka agertu diren taldeak:

Geltoki, Ekoalde, Hazialdeko, Landare, Errigora, EHKO, Plazara!, Habelarte, REAS Navarra; erakunde ekologistak: Sustrai Erakuntza, Greenpeace, Ekologistak Martxan Nafarroa, Ekologistak Martxan, La Fertilidad de la Tierra, Red de Semillas de Navarra, Helianto, Mugarik Gabe Nafarroa, Extinction Rebellion, Baztango talde Ekosoziala, Fundacion Mundu Bat, Ximaupila; sindikatuak: ELA, LAB, Steilas, Etxalde sindikatuak; estatu mailako INTERECO, SEAE, CAECV, ENEEK, CBPAE, Ecocomedores de Canarias, Ecocamp; kontsumo taldeak: Jateko, LeitzEKO, Janaske, Antsoaingo Kontsumo taldea, Erleak kontsumo taldea eta DKT Deierriko kontsumo taldea; beste erakunde batzuk: Sakanako Garapen Agentzia, Jangela, Biba Ardoak, Ecotienda Joxenea, Suma con causa, Olatukoop, Denendako, Ermitaldea, Holistic Bloom elkarteak, Iranzu Herri Kandidatura, Espartzako Udala, Burgiko Udala, RS Esca Salazar Mankomunitatea, Xaiki, Pirimakume....



Adierazpena irakurtzeko QRa



Sumatu al dituzue gure inguruko erreka bazterrak gorritzen?

Egun Ero irratsaioan ingurumeneko kolaborazioa egiten digu Edurne Gerendiain lizasoarrak, eta protagonista bat ekartzen digu aldioro. Gaurkoan, zenbait hitz eman dizkigu pista moduan protagonista nor (edo zer) den asmatzeko. Ea ba: erreka, otsaila, gorria, altua, nitrogenoa, hosto erorkorra, jostailuak, margotu...

Tira, erraza izan duzue asmatzea, goian duzue erantzuna eta! Bai, haltza da gaurko ingurumen ataleko protagonista. Zergatik haltza? Bada, Ultzama, Arakil eta Basaburua inguruan hasi garelako erreka bazterrak gorrituta ikusten, eta kolore hori haltzena baita.

Izei forma izaten du zuhaitz honek, eta nahiko azkar hazten dira: zazpi edo zortzi urte bete arte, urtean metro bat. Makalen eta beste konifera batzuen kasuan, hazte

prozesua mantsoagoa izan ohi da.

Eta, jostailuen pista hori zergatik? Bada, haltzaren zura oso preziatua ez bada ere, jostailuak eta antzeko gauzak egiteko asko erabiltzen da. Mahai tresnak –koilara eta sardexkak–, zurezko kuxak, altzarien hankak... horietako asko haltzaren zurarekin egiten dira. Hostoak eta azala, berriz, margotzeko oso aproposak dira. Kolore gorriko azala du zuhaitzak, lehenago esan bezala.



“Zazpi urte bete arte, urtean metro bat hazten da haltza”

Erreka ondoan ezinbesteko papera betetzen dute zuhaitzok. Zein? Haien sustrai sakonek erreka ura garbitzen dute, eta uholdeak daudenean, sustraiek lurrari eutsi egiten diote, urak lurra higitzea galaraziz. Horrez gain, lur pobreetan haltzak landatzea ona dela azaldu du Gerendiainek, izan ere, nitrogenoa ematen diote lurrari.

Lore arrak eta emeak ematen ditu haltzak garai honetan, gerora fruituak emateko. Baina... orain ba al dago intsekturik? Ez, ezta? Eta beraz, nola egiten du polinizazioa? Bada, haizea da horretaz arduratzen dena. Horrela azaldu du Gerendiainek: “Haize boladak aprobetxatzen dituzte haien artean polinizazioa egiteko, pentsa zein prestatuak dauden!”.

Aipatu dugu kolore gorrixka hartzen ari direla azkenaldi honetan haltzak... eta zer esan nahi du horrek? Poliki-poliki udaberria badatorrela!

Hartzak bezala, neguan, erleak ere babespean

Negua badoa. Eguna luze**agoa** da. Eguzkiak gehiago **berotzen** du. **Lehenbiziko** loreak atera dira. Natura lo zegoen. Orain **iratzartzen** ari da. Erleak ere atera dira janari **bila**. Udaberria hemen da!

Erleak kolonietan bizi dira. Kolonia hauek **erlauntzak** deitzen dira. Kolonia-komunitate hauetan langileak, erregina eta erlamandoak bizi dira.

Erregina erle guztien ama da. Berak arrautzak jartzen ditu. Hori da bere lan **bakarra**. Erregina bat dago erlauntzean.

Erlamandoak erle harrak dira. Erlamando gutxi daude erlauntzean. Hauek erregina **ernaltzen** dute. Hori da bere funtzio bakarra. Oso alferrak dira, ez dute lanik egiten.

Langileak erle **eme antzuak** dira. Erlauntzeko erle **gehien-gehienak** langileak dira. **Nekaezinak** dira. Hauek erlauntzeko lan guzti-guztiak egiten dituzte: **argizaria** egin, **abarasketako** gelatxoak egin, janaria bildu, **eztia** egin, propolia egin, larbak zaindu eta elikatu, erlauntza zaindu/desinfektatu/garbitu...

Erlauntzean langileek **agintzen** dute. Erregina zaharra denean erregina berria egiten dute. Erregina

berria egiteko, larbari janari **berezia** ematen diote: **erregina-jelea**.


Erlamandoak behar direnean erlamandoak egiten dituzte (janari berezia emanez larbari). Hauek bere lana egin dutenean, kanporatu edo hiltzen dituzte.

Erleek hizkuntza berezia dute. Gorputzeko mugimendu eta dantzak dira beraien hizkuntza. Erle batek janaria aurkitzen du, erlauntzera joaten da eta beste erleei esaten die: janaria han dago! **Txundigarria** da erleen mundua!

Erlauntz berriak horrela egiten dira:

- Erle langile esploratzaileek leku **egokia** bilatu eta **aukeratzen** dute.

- Erregin berriak egiten dituzte. Erle talde bat erregin berri edo zaharrarekin leku berrira joaten da. Hau normalean maiatz-ekainean izaten da eta oso polita da ikustea. **Ikusgarria!**



Neguan erleak ez dira ateratzen. Erlauntzean egoten dira erreserbak jaten (eztia) eta lo, hartzak neguan bezala. Negua gogorra da. Erlauntz batzuk hiltzen dira.

Udaberrian erleen mugimendu handia hasten da. Langileak janaria biltzen (polena, nektarra...) hasten dira. Erregina **arrautzak erruten** hasten da. Erlauntza asko **hazten** da. Maiatz-ekainean erregina berriak erle talde batekin erlauntzetik ateratzen dira. Erlauntz berria egiten dute, beste leku batean. Horrela **ugaltzen** dira erlauntzak.

Udan ezia egiten dute erleek, gero negua pasatzeko. **Erlezainek** ezti hau hartzen dute. Baina dena ez.

Erleak oso **garrantzitsuak** dira ekosisteman. Landareen polinizazioan oso garrantzitsuak dira. Polinizaziorik **gabe** landareak desagertzen dira. Landararik gabe bizitza bukatzen da.

Gure kulturean, erleak oso bereziak izan dira. Etxeko abere eta animaliei **hika** hitz egiten zaie, baina erleei **zuka**.

Erleak ere mehatxatuta daude: gaixotasun berriak, Asiako **erlaztina**...

Zaindu erleak!



Nabar



Hiztegia

- X-agoa:** Más X (luzeagoa: más largo)
- Berotu:** Calentar
- Lehenbiziko:** Las primeras
- Lo:** Dormida
- Iratzarri:** Despertarse
- Bila:** En busca
- Erlauntza:** Colmena
- Erregina:** Reina
- Bakarra:** Único
- Erlamandoa:** Zángano
- Langilea:** Obrera
- Eme:** Hembra
- Antzua:** Estéril
- Gehien-gehienak:** La gran mayoría
- Nekaezinak:** Incansables
- Argizaria:** Cera
- Abaraska:** Panal
- Eztia:** Miel
- Agindu:** Mandar
- Berezia:** Especial
- Erregina-jelea:** Jalea real
- Txundigarria:** Fascinate, maravilloso
- Egokia:** Adecuado, apropiado
- Aukeratu:** Escoger
- Ikusgarria:** Espectacular
- Negua:** Invierno
- Arrautzak errun:** Poner huevos
- Hazi:** Crecer
- Ugaldu:** Reproducir
- Erlezain:** Apicultor
- Garrantzitsuak:** Importantes
- Gabe:** Sin
- Hika/zuka:** Diferentes tratamientos en euskara. Zuka es más formal que hika.
- Erlaztina:** Avispa



Otsailean, sagardotegira txangoa

Sagardotegira egindako txangoa kontatu digu jubilatuen elkarteak azken kolaborazio honetan. Sagardoa dastatzeaz gain, bestelakoak ezagutzeko aukera ere izan zuten. Gainera, martxoko eta apirileko txangoak prestatzen ari dira honezkero.

Otsaileko txangoa sagardotegirakoa izan zen eta hainbat gauza ikusteko probestu genuen eguna, nahiz eta eguraldiak ez zigun lagundu. Taldeka banatuta hurrengo lau leku hauek ikusi genituen:

Murgiatarren jauregia: Erdi Arotik, Astigarraga inguruko familiarik boteretsuena izan zen.

Mila urte baino gehiagotan gerrak eta suteak sufritu arren, zutik dirau jauregiak. Gainera, joan den mende bukaeran berritu zuten. Gaur egun, guk egindakoa bezalako bisitak jasotzeaz gain, ekintza sozialak, ezkontzak, kongresuak eta antzekoetarako prestatua dute.

Sagardoetxea: Sarreran gaur egungo sagardo botilaren ezaugarriak erakutsi zizkiguten eta gero sagardoari eskainitako etxe baten maketaz baliatuz, lehengo baliabide eskasekin sagardoa nola egiten zuten erakutsi ziguten, baita txalapartak sagarra prentsaketa amaitu zela iragartzen zuela ere. Lan horietan parte hartzen zuten guztiak muztio landua probatzera gonbidatzen omen zituzten.

Sagardia: Oinez egiteko ibilbidea prestatua dute sagarrondo desberdinekin, non sagarraren kultura modu dinamikoan eta pedagogikoan erakusten duten, bilketa praktika barne.

“

Otsaileko txangoa
sagardotegira
egin genuen

”

Dastaketa: Lehenik, txotx ohiturak nola diren eta nondik datozen esan zizkiguten, gero, bi sagardo mota oso desberdin dastatu genituen, eta azkenik, zukua eta patxaka tragoxka bat ere hartu genuen.



Murgia jauregitik ateratzen.



“ Hurrengo txangoak Logroñora, Kantabriara eta Extremadurara egingen ditugu ”

Ondoren, alde guziak elkartu eta autobusez Alorrenea sagardotegira abiatu ginen. Nola ez, ohiko menua izan genuen bazkaltzeko. Aspaldiko partez, platerik gabe moldatu ginen eta



▲ Dastaketan, gogoz jokatzeko

ateratzen zutena konpartituz eta txotx dei guziei kasu eginez ibili ginen. Ederki bazkaldu ondoren, etxera itzuli ginen, jan genuen haragia goraipatuz.

Martxorako Logroñorako txangoa prestatzen ari gara, eta apirilerako Arkupekoekin Kantabriara egingen duguna.

Apirilean Extremadurara ere joanen gara, nahiko pertsonen eman dutelako izena, ea zer berri ekartzen duten handik.

Bestetik, bi ikastaro prestatzen ari gara, osasun langileekin batera: bata bihotz-biriketako bizkortzea desfibriladorearekin nola egin, larrialdietan nola jokatu behar dugun ikastek. Bestea, eztarria trabatzen denean zer egin behar dugun erakusteko izanen da. Datak daudenean jakinaraziko dugu.



▲ Dastaketarako prest!

“ Bi ikastaro prestatzen ari gara osasun langileekin ”

Datorren alerako utziko ditugu delegatuen kontuak.

Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatuak Elkarteak



iritzia



Onintza Enbeita

Berria

Eraman edo joan

2023ko martxoak 9

Pentsatzen jartzen naizenero konturatzen naiz zenbat aldiz erabaki duen bizitzak nire partez. Gauzak etorri ahala hartu ditut, eta inertziak amaitu ditu harremanak, edo ezetz ez esatearren amaitu dut pantaila aurrean inoiz egingo ez nukeena egiten, edo kuriositate hutsagatik agertu naiz bodya soinean dudala argazkietan. Joan eta joan egin dut batzuetan, baina eraman eta eraman egin nau bizitzak gehiagotan. Batzuetan onerako izan da, baina ez beti. Orduan, perspektibatik pentsatuta, argiago izan behar nituen gauzak hasieratik. Inkontzientziak lagundu egiten du egoera batzuetan, baina labana asko utz diezazkiguke bizkarrean.

Horregatik gustatzen zaizkit galdera asko egiten dituzten gazteak. Ezer eskaintzen diotenerako edo zerbait berria usaintzen dutenerako, galdetu egiten dute, arakatu eta ikertu. Nik ez nuen beti hori egin, eta galdetzen dutenek ere beti ez dute erantzuna kontuan hartuko. Gauza da galdetzeko ohiturak disgustoak aurreztu ditzakeela. Eta, hala ere, askotan ez dut erantzun nahi izaten, min batzuk norberak hartu beharrekoak direlako.

Ariketa zaila da bizitzaren bidean joatearen eta bizitzari nahinora eramaten uztearen arteko oreka. Inoiz iritsiko ez zinatekeen lekuak ederrak direnean, sentsazioak izugarriak dira; baina alderantziz ere gerta daiteke.

Basaburutik Ameriketara artzain joan zirenen datuak biltzen



Euskal Artzainak Ameriketara museoa ▲

Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak Basaburutik Ameriketara joandako artzainen datuak bildu ditu, eta datorren urteko bilkura Berueten egingen dute.

Euskal Artzainak Ameriketara elkarteak Nafarroatik Ameriketara joandako artzainen datuak, testigantzak eta argazkiak biltzen daramatza urteak, 2006an, bere lehenengo festa eta bilkura egin zuenetik. Orduetik, Bortziriak, Malerreka, Baztan, Aezkoa, Erro, Esteribar, Iruñea aldea, Larraun eta beste zenbait bailaretan ibili dira datuak biltzen. Horrez gain, artzain guztiak biltzen dituen festa antolatu dute urtero eta jasotako datuak zabaltzen eta gizarteratzen dituzte.

Aurten, 2023an, Basaburukoak bildu dituzte, eta datorren urtean bilkura Berueten egingen da. Elkarteko kide den Santi Alzuguren arduratzen da datuak eta argazkiak biltzeaz, bertako pertsonen, udalen eta entitateen laguntzarekin. Gurean Juantxo Aleman Asitzen laguntza izan dute. Harengandik jaso dituzte datuak.



Argazkia, erran.eus ▲



Mimosa Bulegoa: Beramendiko Kata Martaren eta La Furiaren management feminista proiektua


Zenbait urte daramatza martxan Mimosa proiektuak, baina otsailaren 16an egin zuten bulegoaren aurkezpen publikoa Bilboko Bira kultura gunean. Nerea Loron La Furia eta Kata Garcia beramendiarrak daude egitasmoaren atzean.

Manager gisa egiten dute lan, baina beti ere LGTBQ ikuspegi feminista batetik eta zaintzak erdigunean jarrita. Proiektu feministak bultzatzea dute xede, eta orain arteko ibilbidean, musikariekin ez ezik, beste zenbait diziplinatako artistekin ere ari dira lanean. Beramendiko gazteak Esan Erran irradian kontatu zuenez, Euskal Herriko nahiz nazioarteko artistekin ari dira: Rebeca Lane musikari guatemaldarra; Elisa Coll eta Irene Collado madrildar eta katalanak, haien late night show-arekin eta Coll-en hitzaldi, tailer eta

Resistencia bisexual liburuaren aurkezpenekin; La Furia rap kantaria; Irantzu Varela bere hitzaldi eta orain aurkeztuko duen Señoricidio bakarriketarekin; Albina Stardust eta Divina Comedia taldea eta bere DJ set-a.



Mimosa bulegoaren aurkezpena, Bilbon



Carrefour
express
Zugandik gertuago

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9'00 - 20'00
LARUNBATA ETA IGANDEA
9'00-14'00 / 16'00 -20'00



CAMPING - KANPINA
IZARPE
ULTZAMAKO ATEA • PUERTA DE ULZAMA



Arrosa irrati sareko topaketak, Oreretan

Euskal Herriko irrati libre eta komunitario euskaldunen sarea da Arrosa, eta bertako kide da Esan Erran irratiarena. Aurtengo martxoaren 4an, X. Arrosa topaketak izan dira Oreretan, Zintzilik irratia-aren egoitzan, eta bertan izan dira Esan Erran irratiko kideak.

Oreretako Zintzilik irratia 40. urteurrena du eta horregatik hartu dituzte aurtengo topaketak. Harrera eta gosaria egin ondoren, hainbat hitzaldi eta tailer antolatu zituzten. Gainera, irratian bertan, bildutako irratiko kideen artean irrati nobela nahiko inprobisatua osatu genuen. Ondoren duzue QR kodigoa, entzuteko. Bazkaria etorri zen ondoren, eta, gero, bingo musikala eta Oreretako borroka guneak izandakoak ezagutzeko tour "turistikoa" rekin bukatu genuen.

Ultzama aldeko gure Esan Erran irratia ere urteurrena du aurtengo, 25 urte beteko baititu. Horretarako, herritarrekin bilera irekiak prestatzen ari dira, nola ospatu erabakitzeko eta antolatzeko. Lehenengoa, martxoaren 13an izan zen Eritzegoitin. Izanen dituzue gehiagoren berri.



Topaketen egindako irratisaio berezia, Zintzilik irratian



Aurtengo Arrosa Topaketak, Oreretan



2021eko Arrosa Topaketak, Iurretan

ES MOMENTO DE REHABILITAR BIRGAITZEKO GARAIA DA

Ahora es el momento de reformar la envolvente térmica del edificio de tu comunidad.

Aurreztu eta klima-aldaketa geldiaraziko duzu.
Abenduaren 31 arte. Guk lagunduko dizugu.



EDIFICIOS COMUNITARIOS Y VIVIENDAS UNIFAMILIARES

Hasta 20.000 euros de ayuda por vivienda por envolvente térmica y otras mejoras de eficiencia energética.



REHABILITACIÓN RURAL

Hasta 22.800 euros de ayudas por reforma y mejora de eficiencia energética en edificios de municipios de hasta 5.000 habitantes.



FISCALIDAD

Convocatorias con exención de tributación de las ayudas; y con deducciones fiscales del 20% al 60%, según la mejora energética conseguida.

AYUDAS VIGENTES HASTA EL 31 DE DICIEMBRE DE 2023. INFÓRMATE HOY



navarragreen.es

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



nafarroagreen.eus



Neguan, sustraiak eta mineralak

Udazkena biriken urtaroa dela esen bagenuen, giltzurrinaren urtaroa da negua. Eta, udazkenean, gorputzak zapore mina behar bazuen, gatza eta mineralak behar ditu neguan. Hezurrak eta medula zaintzeko mineralizazioan lagunduko duten jakiak, hain zuzen ere. Hori da txinatar medikuntzan aditua den Laia Llopien hilabete honetako gomendioa.

Aurreko kolaborazioan hitz egin bezala, garrantzitsua da elikadura gure organoen beharretara egokitzea. Horrela, udazkenean gomendagarria da birrikak zaintzea, eta gorputzak zapore mina eskatu ohi digu. Bada, neguan sartu gara bete-betean eta, orain, giltzurrinak zaintzeko garaia da.

Giltzurrina

Neguko organoa giltzurrina dela esan dugu. Aldi berean, hezurrek eta medulak gidatzen dute giltzurrina. Horregatik, organo hauek zaindu behar ditugu. Laia Llop: "Barru-barrukoak eta gogorak diren organoak zaindu behar ditugu neguan. Kristalizatuta ditugun gure gorputzaren zatiak dira, eta organo hauetarako oso garrantzitsua da mineralizazioa. Gorputzaren elementu horiek oinarri ditugu eta horiek zainduko ditugu gero udaberrian loratzeko".

Naturan ikusten dugunaren antzekoa gertatzen zaigu. Naturan ikusten dugunez, kanpoko mugimendua mantsoitzen da, garai honetan barrura begiratzen du naturak, izan ere, kanpoko mugimendurik ez dugu ikusten baina horrek ez du esan nahi hilik dagoenik, lur azpian gauza asko gertatzen ari dira, natura

udaberrirako prestatzen ari da, orduan gertatuko den loratze prozesurako.

Gure gorputzean ere barrura begira jarriko gara, eta, esan dugun bezala, barru-barruan hezurrak ditugu eta horiek laguntzeko mineralizazioan lagunduko duten jakiak behar ditugu. Laia Llop: "Neguko zaporea zapore gazia da. Gatza, hain zuzen ere, mineralez beteta baitago eta kristala baita".

Jaki gaziak

Zer jakirekin lotzen dugu gatza? Itsasoko janariarekin, adibidez: arraina, mariskoa eta algak. Eta oso interesgarriak dira, bestetik, lur azpian dauden jakiak ere: sustraiak, erremolatxa, azenarioa, batata (boniatoa), tipula, baratxuria... jaki horiek oso aproposak dira neguan: "mineralizazioan laguntzen digute eta, gainera, gozotasuna





Zer jan,
hura izan
◀ Esan Erran
irratian
entzuteko
.....

ere eskaintzen dute. Arbia (Nabo), adibidez, pikantea ere bada, eta gainera, gorputza barrutik indartu eta barruko berotasunari ere laguntzen dio. Mineralizazioarekin batera barruko berotasun hori indartzea, erraztea, garrantzitsua delako garai honetan”.

Elikagai mota hauekin eta jaki beroekin lortuko dugu hori guztia. “Hau da, orain ez da garaia barazkiak baporean egosiak edo entsaladak eta fruta jateko. Labean erretako edo egositako jakiak jateko garaia da. Baita gisatuena ere, berotasuna eta denboraz egindako jakiendako garaia. Barruko berotasun hori indartzen laguntzen digute eta aipatutako mineralizazio funtzio hori ere badute”.

Pikantea neurrian hartzeko esaten genuen, bada, gatzarekin berdin egingen dugu. Laia Llop: “Gainera, badirudi gatz deabrua dela, baina neurrian hartuta eta konposizioa kontuan izanda, ona da. Adibidez, itsas gatzak edo gatz naturalak (findu ez dena) ekarpenak egingen dizkigu. Eta aipatu ditugun algek edo barazkiek ere mineralak dituzte, eta sustraiek eta garai

honetako barazkiek ere hostoetan mineral ugari dituzte: azaren hostoek (brokolia, azalorea, azaburua...), espinakek, zerbak... garaiko barazkiek orokorrean”.

Gordinean, goizean

Egunak luzatzen ari dira, beste momentu batean sartzen ari gara, baina oraindik eguzki ordu gutxi ditugu. Horregatik, Llopek azaldu digunez, goizean da egosi gabeko jakiak jateko momentua: fruta jateko, adibidez. Llop: “Orain laranja ditugu, limoiak, sagarren bat gelditzen da, udareak... Iluntzean, ordea, egokiagoa da dena egosia jatea, barazkiak edo sagarra labean egosita edo konpota... gorputzaren tenperaturari lagundu behar diogulako”.

“Labean erretako
edo egositako
jakiak jateko
garaia da”



▲ Gatza. Lawrence OP. CC. Iturria, flickr

Hilabete honetako errezeta: barazkiak labean

Bi errezeta proposatu dizkigu
Laia Llopek:

Batata, erremolatxa, azenarioa eta nahi ditugun barazkiak, labean; osoak edo txikituta. Sukalde ekonomika dutenendako, erretilu batean jarri eta ekonomikaren gainean jarri. Utzi poliki-poliki egiten ia urik gabe eta gatz pixka batekin; horrela, jaki horien azukre propioa karamelizatzen utziko dugu. Barazki horiek arraina edo zekale eta lekale batzuk laguntzeko erabil ditzakegu, baita plater nagusi gisa ere.

Barazkiak soberan gelditzen bazaizkigu postre bat egiteko ere erabil ditzakegu. Batata eta azenarioa labean egosi ondoren ongi txikitu, sardexka batekin zanpatuz, eta kanela pixka batekin (espezieek ere aipatu gorputzeko berotasuna indartzen laguntzen baitigute). Birrindutako kokoa edo almendra irina gehituko diogu, ala biak. Tarte batez utziko dugu, kokoak hezetasuna xurgatzen duelako eta masa bat egingo da. Horrekin borobiltxoak egingen ditugu eta kanpotik koko gehiago edo sesamo haziak botatzen ahal dizkiogu. Askarirako jakiederra eta erraza da, eta erretako barazkiak aprobetxatzeko erabil dezakeguna.



Etxalekuko irakurle taldea Jon Alonsorekin



Maddi González Orbegoza Pulunpeko zozketa mundialean tokatu zitzaion zerriaz disfrutatzen



Larrintzarko ihoteak



Mendi Federazioan saria jositzen Leontzio Uharte



Larrintzarko ihoteak



Beuntzako Ignacia gazta egiten



Beuntzako Ignacia gazta egiten



Lanzko ihoteak. Amaia Urdanizen argazkia



Lanzko ihoteak. Amaia Urdanizen argazkia

Tradizioa eta historia ezagutu, antzerkiaren bidez

Jolasteko gozagarria den bezala, ikasteko tresna polita izan ohi da antzerkia. Eritzegoitin eta Anotzibarren tradizioa eta historia kontatzeko baliatu dute azken urteetan. Lehenengoan, eguberrietan, solstizioarekin zerikusia duten istorioak antzeztzen dituzte; eta, bigarreanean, inkisizio garaian Odietan gertatutakoa.

Hiruzpalau urte daramatzate Eritzegoitin (Atetz) eta Anotzibarren (Odietan) antzezlana eskaintzen. Eritzen abenduaren 24an egiten zuten, Olentzeroren etorrerarekin batera, neguko solstizioa eta haren inguruko Euskal Herriko ohiturak azaltzeko. Eritzeko Goizargi Santxok gidatzen ditu antzezlaren prestaketa lanak: "Juan Kruz Igarabide eta Nerea Odriozolaren Eguberri liburuan oinarrituta, urte batzuk daramatzagu umetxoekin antzerki bat prestatzen. Aurten oso gustura ibili ziren eta jendetza bildu zen".

Anotzibarren ere duela lau urte hasi ziren -izurritea tarteko, aurten hirugarren antzezlana izan da- ihoteetan, inkisizio garaian herrian hil zituzten herritarren historia latza kontatzeko. Gurutze Santxo, Goizargiren ahizpa eta Anotzibarko herritarra, prestaketa lanetan aritzen da: "Anotzibarren gertatutakoa kontatzen dugu, baina istorio bat asmatuz, urtero aldatzen duguna nahiz eta pasarte batzuk errepikatzen diren. Garai hartan nola bizi zen eta egun horietan gertatutakoa kontatzea da asmoa".

Historia eta tradizioa

Esan bezala, neguko solstizioa eta euskal ohiturak azaltzeko asmoz egiten dute antzezlana Eritzen. Horrela, lau agerralditan banatu zuten pasa den abendukoa: ur goiena, ur barrena; eguberri, ogi berri; eguberri, jantzi berri; eguberri, eguzkizahar, eguzkiberri. Modu horretan, istorio mitologikoak antzeztearekin batera, garai bateko ohiturak agertzeko aitzakia ere izaten dute: ogia edo arropak nola egiten zituzten, esate baterako.

Anotzibarren ere, inkisizioaren historia latza kontatzearekin batera, XVI. mendean nola bizi ziren kontatzeko aukera ematen die antzezlana. Horretarako, urtero elementu bat nabarmentzen dute: pasa den urtean sendabelarrak eta aurten ibaia izan dira. Gurutze Santxo: "Gaur egungo amona bat agertzen da, bere bi biloben galderak erantzunez. Bilobak Zugarramurdira egin dute txangoa, eta hari horretatik tiraka, Anotzibarren gertatutakoaz galdezka hasiko zaizkie. Garai horretako eszenak tartekatuko ditugu. Aurten ibaiaren inguruan antolatu dugu antzerkia, orduan, umeak jostaketan agertuko dira, ibaiaren ondoan; ibai ertzerara joanen dira Mari Joana eta Xandua, arropa garbitzera, han topatuko dira eta jakingo dute inkisizioa inguruan ere hasi dela jendea salatzen...".



Anotzibarko ihoteetako antzezlana ▲



Atezko antzerkiaren inguruko soinu erreportajea, Esan Erran irratan

Baina, noski, batez ere inkisizioak eskualdean egindakoa kontatzeko asmoz egiten dute antzezlanak: "Bertako hiru pertsona atxilotu zituzten: Mari Joana, Mariato Xandua eta Miguel Zubiri; horietako bi, Xandua eta Miguel, espetxean hil ziren jasandako torturen ondorioz, eta Mari Joana bizirik erre zuten Iruñeko Takonera parkean". Anotzibar ez zen horrelako kasurik izan zuen herri bakarra, baina kasua nahiko berezia da. "Aurten Egozkuetik Urritzolara joan zen emakume baten kasua aipatu dugu eszena batean: 'badakizue Egozkueko Maria Grazia eraman dutela?' esanen dute pertsonaiek; ondoren, haurrak agertuko dira beste eszena batean apaizarekin, doktrina gisa, Anotzibarkoa kasu nahiko isolatua izan baitzen Nafarroan, hemen herriko apaiza berak, Don Pedrok, salatu baitzituen bere bizilagunak beste herri batzuetan ez bezala".

Goizargi Santxo:
Umeak oso gustura ibiltzen dira, eta jendetza hurbiltzen da

Aktore lanetan, herriko umeak

Eritzen, antzerki lanetan umeak bakarrik aritzen dira. Adin mugarik ez dago, aurten bost bat urtetik hamabi urtetarainoko ume eta gaztetxoak bildu dira, Ultzamakoak, Atezkoak eta Odietaakoak. Guztiek aitortu digute oso gustura aritzen direla. Hain zuzen ere, Eritzekoan eta Anotzibarkoan, bietan, aritzen dira batzuk, Anotzibarko Maddi eta Oinatz anai-arrebak edo herri bereko Auritz, esate baterako. Oinatzek eta Maddik lehenengo urtea dute, eta haiekin batera, baita Zenozko Oierrek eta Aitorrek ere. Urte batzuk daramatzate Hintzak, Auritzen ahizpak, Amalurrek, Eritzeko lehengusinak, Zenozko Iratik edo Egillorko Sirak.

Anotzibarko ihoteetako antzezlanean, ordea, umeek eta helduek antzezten dute elkarrekin. Gurutze Santxo: "Zortzi-hamar bat lagun elkartzen gara antzezteko, oso giro politean, eta oso ongi pasatzen dugu, entseguetan eta baita egun horretan ere. Nahi duenak parte har dezake. Aurrekoetan akusatuen artean Mari Joana bakarrik agertzen zen, inkisidorearekin, haurrekin eta apaizarekin, baina akusatuen artean Mari Joana bakarrik.



Anotzibarko ihoteetako antzezlana ▲

Aurten, nobedadea da Mari Joanarekin batera Xandua agertzen dela, akusatuen artean. Miguel ez, ez baitugu gizon nahikorik, baina aipatu ere, aipatzen dugu. Gainera, iaz, eszena batzuen artean dantzak partekatzen hasi ginen eta aurten ere horrela egin dugu". Eritzen ere dantzan eta kantuan aritzen dira antzezlanean. Auritz, Gurutzeren alaba, bi antzezlanean aritzen da eta hori da, hain zuzen ere, gehien atsegin duena: "Gauza batzuk zailagoak egiten zaizkit, baina ezer ez bereziki zaila. Dantzatzea eta kantatzea da gehien gustatzen zaidana".

Otsailaren 18an egin zuten antzerkia Anotzibarren, ihoteen ospakizunetan. Eritzen, aipatu bezala, abenduaren 30ean, lehen Olentzeroren etorrerarekin egiten baitzuten, baina izurritetik aurrera egun horretatik kanpo atera dute. Datorren urtean, aukerarik baduzue, hurbildu zaitezte ikustera.



Atezko antzezlana ▲



Artzainak eta mendi-mutilak

Ameriketako berriak ez dira onak

Ez, berriak ez dira onak. Aspaldian Ameriketara joan eta bertan laketuak ditugu hainbat imoztar. Garai batean gazte asko joan zen, baina bertan bizitzen gelditu zirenak gutxi izan ziren. Imoztik joan zirenetatik bakar batzuk besterik ez ziren bizi orain artio eta lau hilabete barnean hiru adiskide hil zaizkigu: Joxe Angel Erbiti Arostegi (2022/10/23 +) eta Pako Aldaregia Azpirotz (2023/02/25 +) Etxalekukoak, eta Cruz Mari Amezketa Beloki (2023/02/10+) Latasakoa.

Hala kontatu digute Itziar Aldaregia Saralegi eta Josune Baleztena Aldaregia etxalekuarrek Pako eta Joxe Angelez:

“ gazte joan ziren Etxalekutik “amerikak egitera”. Kaliforniako Riverside Konderrrian finkatu ziren; Jose Angel **Moreno Valley**-en eta Paco **Perris**-en.

Etxalekutik elkarrekin joan ziren eta Ameriketan hala bizi izan ziren, bai ardien negozioan haiek zioten “Ranch”a sortuz eta baita Chinoko Euskal Etxean egiten ziren festetara joanez ere.

Etxetik urrun izanik bertan familia berria sortu zuten, erdi amerikarrak bihurtuz baina beti-beti Euskal Herria bihotzean eramanez”

Eta Camino Iribarren Belokik, bere anaiatz, Cruz Mari Amezketa Belokiz, hau dio: “23 urtetan joan zen Kanadara, baso-enpresa batek kontratua, beste gazte askorekin batean. Eta bere bizi guzian han izan da, arbola botatzen, bertako mortuetan, herri eta hirietatik ezin urrunago. Helikopteroz eramaten zituzten, hilabeteak eginez ia jenderik ikusi gabe, barrakonetan lo eginez. Jubilatu artio beti oihan-lanetan. Ondoren lorezaintzan eta irakurtzen, horiek zituen gustukoak eta”



Cruz Mari Amezketa Beloki (1951-2023)
Ostazarrekkoa.



Pako Aldaregia Azpirotz (1942-2023)
Apezenekoa



Taldearen 10 urteko bidaia jasotzen duen dokumentala

Skabidean 10 urte dokumentala atera du talde nafarrak bete berri duen hamarkada ospatzeko. Imanol Olague ultzamarra da taldekideetako bat. Otsailaren 10ean ikus-entzunezkoa Larraintzarko bentan proiektatu eta taldekideekin solasaldia izan genuen, eta aitzakia hori aprobetxatuta, Antonio Iriarte Ugarte baterijolea elkarriketatu genuen irratian.

10 urte bete ditu taldeak. Erraz esaten da, baina bada denbora...

Bai, bai, bada. Hasi ginenean, gure ondokoek esaten zuten ez genuela diska bat ere aterako! Baina bai, pasatu da denbora. Polita gelditzen da 'hamar urte' esatea, baina, hamar urte elkarrekin bada zerbait eh...

Zein bilakaera izan du taldeak urteotan?

Hasieran, nahiko musikari traketsak ginen, baina gaur egun oholtzan ongi defendatzen gara, beraz, alde horretatik pozik gaude. Bestetik, izaera aldetik ere gure ibilbidean garrantzitsua izan da beti autogestioan oinarritutako talde bat izatea, solidarioa, asanblearioa... eta nik uste hori hamar urte hauetan mantendu dugula ikustea esanguratsua dela.

Hasiera nola gogoratzen duzue?

Emozio eta intentsitate handiarekin gogoratzen dut hasiera: kontzertu bakoitza, saio bakoitza, abesti bat ateratzearena... ederra zen gustuko genuen talde baten abestia ateratzea, jotzen hastea, elkarri begiratzea eta pentsatzea: "bai, bai, abesti hori jotzen ari gara!". Oso garai politak izan ziren eta nostalgia handiarekin gogoratzen ditut.

Eta, azkenean, disko bat ez, lau atera dituzue...

Bai, kostatu zitzaigun pixka bat gure musika sortzen hastea, baina 2016an lau abestiz osatutako lehen maketa atera genuen. Gero, 2018an, Bideak darrai izeneko diskoa etorri zen, eta 2020an, ordurako Garate estudioetan hasi ginen grabatzen, Izaera grabatu genuen. Iaz, berriz,

Hiri zahar zikina diska kaleratu genuen, gure laugarren luzea dena.

Kontzertuei dagokionez, Euskal Herritik mugitu zarete batik bat?

Bai, gehienbat Euskal Herrian zehar eman ditugu kontzertuak, euskaraz abesten dugulako eta gure ingurua hau delako. Ipar Euskal Herrian ere asko ibili gara, eta gero, hemendik kanpo, Valentzian, Galizian, Madrilan, Avilan, Gironan... hortik ere ibili gara, eta hori taldearentzat oso polita da.

Nondik sortu zen taldearen ibilbidearen dokumentala egiteko ideia, eta zer jaso duzue bertan?

2022an proposamena nik bota nien taldekideei, modu batean edo bestean, dokumentu bat egitea hemendik 20 urtera ikusi ahal izateko eta urte hauek gogoratzeko. Hasieran, guk egindako gauza nahiko xumea izan behar zuen, baina gerora, forma hartzen joan zen, telebistan lan egiten duen Ekiñe Aizkorkekin grabatzen hasi ginen... uda osoan grabatu dugu, bost hilabeteko lana izan da, eta urrian amaitu genuen, urteurren kontzerturako. Dokumentalean, elkarriketen bidez gure historia kontatzen goaz, eta guretzat garrantzitsuak izan diren pertsonak ere agertzen doaz: beste taldeetako musikariak, antolatzaileak... kronologikoki taldeari errepaso bat egin diogu, eta hor agertzen dira gure gaztetako argazkiak, kontzertuetako irudiak... denetik pixka bat.



▲ Skabidean taldea



Seminarista, pilotari profesionala, soziologoa (I)

Goio Urdanitz, Aritzuko semea.

Goio Urdanitz Irurita, aritzuarra sortzez eta bihotzez. Sortzez, **Luxenean** sortu zelako 1950. urtean eta bihotzez, bertan etxea egin eta uda, asteburu eta ahal guzietan hemen dugulako. Aritzu eta Anueko berri inork bezain ongi emanen dizu. Agian, edezinek baino hobeki, historiarako zaletasun handia baitu.

Elkarrizketa luze bat egin diogu bere bizitzako zenbait pasartez. Gaurkoan haurtzaroaz eta gaztaroaz ariko gara.

Zure haurtzaroaz, zer duzu gogoan?

Zer dudan gogoan? Nik zer dakit ba? Ardi eta behiekin ibiltzen ginela, gora eta behera. Plazan, berriz, beti pilotan. Horiek dira nire oroitzapenak. Baina oroitzapen bat badut oso barneratua eta ez hain ona gainera. Oso txarra, esanen nuke: izan genuen maistruarena da, mutikooi oso tratu txarra ematen zigun, Judas baino gaiztoagoa zen. Nolako zaplaztakoak ematen zizkigun! Ikaragarria zen! Hori sei urte nituenekoa da, adin horretan hasi bainintzen eskolan. Beharrik, urte bat besterik ez nuen egin berarekin, hurrengo urtean alde egin baitzuen.



▲ Goio Urdanitz

ARITZUN KONTRABANDISTAK NAGUSI

Besterik ere izanen duzu gogoan eta bihotzean

Astapitokeria batzuk ere egiten genituen, elektrizitateko posteetako katiluei harrika eman, behorrekin mendian saltsan ibili... guardia zibil eta kontrabandistetan ere anitz jostatzen ginen, hori bai, arau zorrotz batekin: kontrabandistek ez zezaketen inoiz galdu.

Goio, zeeeee? Nola da hori?

Bai, bai, hola edo hala, baina kontrabandistek irabazi behar zuten beti. Hori horrela genuen jarria, hori zen araua.

Ja, ja, ja!

Bai, herritik kanpo, sasi eta hesien atzean ezkutatu. "Alto a la Guardia Civil", zibilek oihuka. Besteek ihesi preso hartu behar baitziren. Baina, azkenean, beti ere kontrabandistak izaten ziren nagusi!

Astakeria franko ere egiten zen orduan

Bai, Olaguera joaten ginenean, asto eta mando anitz izaten baitzen han, bakarren bat edo gehiago harrapatu eta herrira ekartzen genituen. Eta han ibiltzen ginen denok asto gainean edo mando gainean.

Eta sagar ebasten-eta ibiltzen zineten? Izan zenuten haserreren bat jaberren batekin?

Bai, sagarrak direla, peloxak direla, hau edo beste dela, ibiltzen ginen baina horrela jabeekin haserre bizkorrik-eta ez. Oihuren bat entzun behar, baina gauza larririk ez.

Pilota zenuten jokorik printzipalena.

Bai, hala da, egunero, ahal guzietan aritzen ginen pilotan. Eta igandeetan zer esanik ez, meza ondoren bazkal ordura artio, mutiko eta mutil guziak bertan izaten ginen, eta atsaldeetan, bazkal ondoren, bezperak artio.

Garai hartan erlijioak ere indar handia zuen. Zer oroitzapen dituzu horretaz?

Don Epifanio Santxo genuen apeza. Nortasun handikoa, manatzailea eta kontrolatzailea zen. Hor karrikan ikusten genuenean hurbiltzen gintzaizkion eskuan muin ematera.



Gero, mezara ere egunero joaten ginen 10 urteak artio bederen. Gero behiekin eta beti zerbait izaten zen eta orduan askoz ere gutxiagotan.

Eta doktrina ere eskola denboran egunero izaten zen. Eskolatik atera eta elizara doktrina ikastera.

Eta monagiloa ere izan zinen?

Bai, bai, eta urte anitzez. **Erramoneko** Lorentzo eta biok urte anitz egin genuen. Hamabost urteak artio bai.



Txurdan

Hiztegia

Araua: regla, norma.

Muin (muñ), **pot** (pott), **musu**.
Gauza berak dira.

Peloxa, bezpera, zurgingoa...
hitzak ezagutzen ez dituenak galde
biezaie gurasoei.

SEMINARIOKO KONTUAK

Zu Seminaria joan zinen. Bokazioa bazenuen ttikitatik! Erlijioa bizkor zen etxean.

Bokazio kontu hori... eztabaidagarria da. Hainbeste ume etxean, aterabidea ere opatu behar izaten zen. Zuk zer dakizu hamar urtetan?

Apezak aipatu dizu Seminaria joateko eta ama ere pozik apez izan zaitezkeela-eta. Zer egin behar duzu? Nik orduan zurgina izan nahi nuen, hori gustatzen zitzaidan.

Beraz, zurgingoa gustatzen, eta?

Bai, hala da, baina beste gauza bat ere bazen. Gure izeba batek, Fermina Etsain zenak, bere testamentuan utzi zuen beka bat, betiko, Luxeneko seme batentzat, eta Luxenekorik ez bazen Aritzuko beste ikasleren batentzat, eta Aritzun ez bazen inor, Anuekoren batendako.

Goio Iruñeko Seminarioan gelditu beharrean Tuterara bidali zuten, Etxarri Aranazko beste bi mutikorekin. Urte bat besterik ez ziren egon Tuteran. Hurrengo urtean Iruñera bidali zituzten.

Iruñera itzuli eta gramatika egin zenuen.

Ez, ez, hori lehenago zen: Gramatika, Filosofia eta Teologia. Ez, ez, gu izan ginen Seminarioan lehenak ikasketa "ofizialak" edo egin genituenak, esan nahi dut, batxilergoa egin genuenak.

Beraz, zuk latin gutxi ikasiko zenuen lehengo apez ikasleekin konparatuz.

Ba, ez pentsa, latin franko ikasi genuen. Eta grekoa. Horretan seminaristak bezala ikasten genuen, ez batxilergoan bezala. Egutero-egutero latin eta greko klasea izaten genuen.

Hortaz, zuk latin eta greko anitz ikasi zenuen.

Bai, bai, eta esanen nizuke latin baino gehiago grekoa. Irakasle onak genituen eta grekoa asko gustatzen zitzaidan.

Seminarioan interno (barneko ikaslea) egon zinen. Zer duzu oroitzapenean?

Oso ongi organizatua zegoen dena. Zazpitan jaiki, mezara, gero klaseak, ikasteko orduak, kirola egitekoak... Kiroletan, futbola, saskibaloia, eskubaloia eta pilota izaten zen. Seminarioko urteak oso atseginak egin zitzaizkidan.

Unibertsitate aurreko kurtsoa

Bai, 1967-1968 ikasturtean izan zen hori. Institutuan, gure kurtsoa guziak bezala. Eta azken azterketa Zaragozako Unibertsitatean. Hori horrela zen.

Eta Seminarioak krisian sartu ziren

Bai, garai hartan zen, Seminarioetan izugarrizko aldaketa izan zen. Husten hasi ziren, jenderik gabe gelditzen, eta nik, hala ere, Filosofia hasi nuen, beste urte bat gehiago egin nuen Seminarioan, 1968-1969ko kurtsoa zen. Eta Iruñeko Seminarioa desegin zen eta Unibertsitatera joatea erabaki nuen. 18 urte nituen.



▲ Eskurtsioan. Goio ezkerrean, 14 urtetan.



Segi, segi, beti aitzina! (II)

Zurak eta egurrak

Azkenekoan ez dakit inor kezkatu eta larritu nuenik. Hezkuntzaz idatzi nuen. Hala ere, gaur beste gauza batez ariko gara, oso gauza diferenteaz: erosioaz, hizkuntzaren erosioaz hain zuzen.

Bi gauzei deitzeko bi hitz ditugunean, bi hitzak erabili beharko ditugu edo hori dut nik uste. Ez zaizu hala iduritzen?

Nor duzu gustuko, zabarra, enasa, utzia, akifardela edo beharbada gehiago maite duzu, txukuna, junttoa, zehatza?

Ez dago pentsatu beharrik ere, jakina! Nahiago dugu dakiena, hizlari ona, gauzei beren izenez deitzen diena...

Gauza bakoitzari bere izenez deitzea, elkar ulertu dezagun, oso inportantea da, baina gertatzen zaigu aspaldian euskaraz hitzak galtzen ari garela. Erdaraz inori entzun al diozu *vamos a hacer la puerta de leña*? Ez, jakina, *vamos a hacer la puerta de madera* esaten dugu. Guk euskaraz ere hala esaten dugu: etxeko zurajea, altzariak eta

beste lanabes batzuk **zurez** egiten ditugu eta **egurra**, berriz, sutarako ibiltzen dugu (garai batean hemen ikatza egiteko ere erabiltzen zen)

Orain ez dakit zer dela eta, zura saldu eta egurra erosi dugu. Dena da egurra. Tratu txarra da hau, ona saldu eta txarra erosi. *Mandotik* astora egin dugu salto. A zer guzpidea!

Gurean **okerra** edo **betokerra** gauza bat da eta **ezkela** edo **begi ezkela** beste bat. Nik uste dut bigarren hau atzendu egin zaigula. Aspaldian ez diot inori entzun, gehienek **okerrarekin** nahasten baitute.

Eta **ugaldea** eta **erreka** hitzez zer esan? Bi hitzak erabiltzen dituzten gutxi batzuk besterik ez ditut ezagutzen. Ugaldera biltzen dira errekek, eta gure herrian ugalde bat besterik ez da. Jakina, ia herri guzietan bezalatsu, bat. Bakarren batean bi izatea ere gertatzen da, hala ere.

Ez gara gehiago luzatuko gaurkoan, ardo frexkoa dugu zain eta. On deigula!



Txurdan

Hiztegia

Enasa: utzia, zikina.

Akifardela: Ahaki edo adaki fardela, hitzen batuketa da. Adakia egur mehe eta motz samarrari deitzen zaio.

Junttoa: pertsona apaina eta ordenatua. Hemen ibiltzen dena, baina gure hiztegietan ez dut topatu.

Lanabesa: aparejo.

Guzpidea: A zer guzpidea! Guzpide txarra dute etxe horretan! Modua, fundamentua.

Okerra edo betokerra: begi batetik ikusten ez duena.

Ezkela edo begi ezkela: begietan zerbait afera izan eta zeharka bezala begiratzen duen pertsona.

(Hiztegian begiratu eta biak gauza bera direla esaten du. Gurean ez da hala)

Ugaldea: Berezko ur-lastera, printzipalena, aldamenetako errekek biltzen dituen.

Erreka: Ugaldera doan ur-laster ttikiagoa.



lur gizena kendu eta tufa. Ondoren erosioa etengabea.



Apeztegi berriko taberna-denda, Jauntsaratsen

Atal berri baten estreinaldia dugu Pulunpe honetan. 'Herrian bertan, zergatik ez?' deitu diogu orrialde honi, eta Ultzama aldeko eskualde zabalean dauden denda, zerbitzu eta proiektu desberdinak ekarriko ditugu. Zergatik atal berri hau? Bada, landa eremuko herri txiki hauek lotarako toki baino bizitzeko toki izan daitezen ezinbestekoak direlako zerbitzu horiek. Lehen gonbidatuak Jauntsarasko Apeztegi berriko lagunak izan ditugu: Olaia Gaskue eta Alejandra Andres.

Noiz eta zein helbururekin sortu ziren Apeztegi berriko denda eta taberna?

2011n ireki zituen ateak, nahiz eta proiektua Udalean lehenagotik ari ziren proiektuarekin. Lehen, txokolateroa eta Simonen etxea genituen Basaburuan elkartzeko eta erosketak egiteko toki, baina biak itxi egin ziren, eta bailara osoan zerbitzurik gabe gelditu ginen. Orduan, eraikin hau berri eta lizitaziora atera zuen Udalak. Garai hartan Aizarozko ostaldea kudeatzen zuen Ernaizu kooperatiba aurkeztu eta horrela hasi zen.

Zer eskaintzen dio bailarari taberna-denda honek?

Herri desberdinetako jendea elkartu daiteke hemen, orain kuadrilak eta etortzen hasi dira... bai. Eta dendari dagokionez, bailaran bertan erosketak egiteko aukera ematen duela.

ESKAINTZA

Taberna: kafe goxoak, gosariak, pintxoak eta bokadilloak, plater konbinatuak, eguneko eta asteburuko menua...

Denda: eguneroko erosketetarako produktuak: elikagaiak, garbiketa produktuak, mertzeria... ekologikoen atala dute, baita eskualdeko produktuena eta glutenik gabeko atala ere. "Denda txikia izanagatik ere, barietate handia dago!"

Pandemia garaian sumatu izan zenuten gorakada, ezta?

Bai, orduan jende guztia zetorren hona erosketetara, asko sumatu zen. Jende guzti horrek etortzen jarraitu izan balu ederki funtzionatuko luke dendak, baina gutxitu egin da. Badira bezero finko batzuk ia erosketa osoa hemen egiten dutenak, baina kontzientziagatik soilik jende gutxi etortzen da. Batzuetan ez da nahikoa baloratzen herri txiki hauetan horrelako dendatxo bat edukitzea. Ixten denean, orduan aztoratzen gara: "Itxi egin da!". Baina galdera da, irekia zegoenean joaten al ginen?

12 urte hauetan zer nolako bilakaera izan du proiektuak?


Tabernako mugimenduak gora egin du urte hauetan, pandemia eta gero sumatu genuen aldaketa batik bat. Lehen gehiago mugitzen

zen turistekin, baina orain eskualdeko jende gehiago ibiltzen da. Dendarena, berriz, jaisten joan da. Egia da prezioak ere asko igo direla eta jendeak geroz eta gehiago begiratzen diola horri, normala da... baina, bestetik, dendako zerbitzuak langileak eskatzen ditu, eta kontuan izan behar dugu hori mantentzeak noizean behin azukre pakete bat erostea baino zerbait gehiago eskatzen duela...

“
Dendako zerbitzua eskaintzeak bueltan eskatzen du jendeak erosketaren zati bat behintzat bertan egitea
”



Olaia eta Alejandra, Apeztegi berriko kideak



Txirrindularitza

Profesionaletan hasi da Mikel Retegi Goñi gaztea

Aita Igoakoa eta ama Auzakoa ditu, eta, astebururo eta atsedeen egun guztietan gure eskualdera etortzea gustatzen zaio, hemen baititu lagunak ere. Mikel Retegi Goñi gazteaz ari gara. Hamar urterekin Ermitagainako txirrindularitza taldean hasi eta 21 urte bete dituenean, profesionaletarako kontratua lortu du. Harekin bildu gara aitatxi eta amatxiren Igoako Bengoetxeako bordan.

Barañainen bizi da Mikel Retegi Goñi txirrindulari gaztea, baina hanka bat han hanka bat gure eskualdean ibiltzen da. Lagunak eta, batez ere, Auzako amatxi eta Igoako amatxi eta aitatxi bisitatzea gustatzen zaio, eta, horregatik, Igoako Bengoetxean bildu gara berarekin. Han, aipatu amatxik eta aitatzik ere hartu gaituzte. Kirolari profesionalen etxea ere bada Bengoetxeako borda, aitatzik Juan Igancio Retegi, Retegi I.a pilotaria baitu, buruz buruko txapelketa irabazi zuen lehenengo nafarra eta Retegi II.aren osaba. Hain zuzen ere, familia eta lagunak eskertu gabe ez du elkarriketa

bukatu nahi izan Mikel Retegi Goñi txirrindulariak: "Beti egoten dira hor, ni babesteko"

Kirol gogorra ematen du, baina, zure ustez, merezi al du?

Atzoko entrenamenduan (elurra mara-mara ari zuela) hotz handia pasa nuen, eta horrelakoetan zalantzak sartzen zaizkizu! (barreak) baina niri gehien betetzen didana da nola hobetzen dudak ikustea. Duela bi urte portu bat igotzerakoan egiten nituen denborak orain erraz egiten ditudala ikusteak, esate baterako. Horrek asko betetzen nau.

Profesionaletarako salto hori nola izan da? Sorpresaz hartu al duzu?


Urtero-urtero hobeki ibiltzen nintzela ikusten nuen, eta hori oso garrantzitsua da, progresioa dagoela ikustea. Aurreko urtean argi nuen helburua profesionaletara pasatzea zela, eta hasieratik horretarako lanean hasi nintzen. Denboraldi erdian, ordea, helburu hori okertu egin zen. Erori eta lepaustuak hautsi nuen. Hor gauzak ilun ikusi nituen, baina urte bukaera oso ona egin nuen eta lortu nuen.

Kolpe ederra hartuko zenuen, eta ez naiz erorketaz ari... zure helburua kolokan ikusteaz baizik...

Bai. Helburua Espainiako kopa irabaztea zen, profesionaletara pasatzeko baldintza gisa ikusten nuen. Hori oso ondo prestatu nuen. Lidertzat jarri eta hurrengo astean erori nintzen, entrenatzen, hor ikusi nuen Espainiako kopa ez nuela irabaziko. Baina, orduan, helburua lortzeko zer egin nezakeen pentsatzen hasi nintzen. Denboraldi bukaera oso ona egin behar nuela ikusi nuen, eta, atsedeen pixka bat hartu ondoren, horretarako lanean jarri nintzen buru belarri.



Mikel Retegi, Igoan, Bengoetxeako bordaren ondoan ▲



Eta, lortu ere!

Bai, oso pozik. Urte hasieran nahiko garbi ikusten nuen profesionaletara pasatzeko aukera izango nuela. Lesioarekin aukera hori ilun ikusi nuen eta zalantza asko izan nituen. Kontratua eskaintzeko deitu zidatenean, beraz, ia negarrez hasi nintzen.

“ **Liderra izateko postua irabazi behar duzu** ”



▲ Mikel, txirrindulan

Ederki ospatuko zenuen!

Lasterketetan nengoen profesionalen taldearekin, probak egiteko eraman nindutelako. Orduan ez nuen aukerarik izan festa egiteko! (barreak) baina etxera itzuli eta familiarekin eta lagunekin ospatu nuen, bai. Oso pozik nengoen.

Egunerokoa zertan aldatzen da profesionaletara pasatzean?

Entrenamenduak luzeagoak eta gogorragoak dira, hori nabaritzen da. Bestetik, zer jaten dugun asko zaindu behar dugu, orain arte arreta jartzen nuen baina ez hainbeste, orain dena pisatu behar dut eta mugak izaten ditut.

Atsedeen egunak izanen dituzu, ala?

Bizikleta ukitu ere egiten ez dudan eguna gehienez astean bakarra izaten da, eta aste batzuetan ezta hori ere. Baina, badiugu errekonferazio aktibo bezala izendatzen ditugun egunak. Horietan ordu eta erdi besterik ez gara aritzen, eta erritmo lasaian. Ezer ez egitea baina hobea izaten da hori, hankak pixka bat mugituz hobeki errekonferatzen direlako.

Txirrindularitza talde lana izaten da, ezta?


Bai, taldearentzako nahiko lan ona egiten dudala uste dut. Liderra izateko postua irabazi behar duzu, ezin zara iritsi eta gutxira liderra izan. Horretarako, besteendako lan eginez erakutsi behar duzu zure gaitasuna. Nahiago nuke liderra izan, nahiz eta presio gehiago duen, talde osoa zure menpe baituzu eta gero emaitza ez baduzu lortzen oso gogorra izaten baita. Baina hori egiteko gai zarela erakutsi behar duzu liderra izateko.

Hori izanen zen zure helburua, noizbait liderra izatea?

Beharbada bai, baina urte asko behar dira horretarako. Lehenengo lan asko egin behar dut taldearendako, haizearen kontra kilometro asko. Horrekin amestuko nuke, baina badakit oso zaila dela. Lehenengo lasterketetan errealtatearen kontra kolpea hartu nuen. 23 urtez azpiko kategoriatik etorri berria uste duzu pixka bat ibiltzen zarela eta bat-batean ikusten duzu maila oso altua dela. Baina, azkeneko txapelketetan hobeki ikusi dut nire burua, nahiz eta onenetik urrun nagoen oraindik. Poliki-poliki, lasterketetan sartzen ari naiz, lehenengoetan justu-justu pelotoian sartzea lortzen nuen, baina orain, dagoeneko, taldearendako lan polita egiten hasi naiz.

Mikel Retegi Goñiren ibilbidea

- 10 urterekin Ermitagañako taldean hasi zen.
- 18 urterekin Lizarte taldera joan zen, Orkoinera, oraingoaren filialera.
- Lehenengo denboraldia du profesionaletan, Kern Pharma taldean.
- Lasterketa batzuk: Vuelta a Murcia, Clásica Almería eta Clásica Jaén. Azken honetan asko disfrutatu zuen, pistetan ere ibili zirelako eta bere teknika erakusteko aukera izan zuelako.



Bi telesail eta pelikula bat

Telebistan ikusteko hainbat gomendio berri dakarzkigu hilabete honetan. Erresuma Batuan ekoiztutako Emily Brontë pelikula, Emily Brontë idazlearen bizitza kontatzen duena; Eta, bi telesail Alemaniatik eta Mallorcatik.

Emily (2022): Garai viktoriarra, zalantzan. Zineman

Frances O'Connorren drama honek, Erresuma Batuan ekoiztua, Emily Brontë idazlearen bizitza kontatzen du. Emily Brontë Ingalaterrako Viktoriar garaiko emakume idazlerik garrantzitsuenetakoa dugu. *Cumbres Borrascosas* edo euskaraz *Gailur Ekaiztsuak* eleberri garrantzitsua idatzi zuen.


Emily Brontë familia dirudun batean jaio zen, eremu bakarti baten erdian, anaia margolaria zen eta bere ahizpa perfektua, Charlotte, etxe-andereñoa. Baina berak idazle izan nahi zuen, egunak lainotzen zizkion barne mundua azaleratu ahal izateko. Garai viktoriarrean sortuta, familiak ez zuen Emily

gehiegi ulertzen: aitak, alabaren manerak zirela eta, ez zuen gehiegi maite, ongi janztea ez baitzen bere lehentasuna eta herriko mutilak ere ez zitzaizkion gehiegi gustatzen. Nahi izatekotan, bakarrik ibiltzen zen bere fantasiako munduan ameslari... eta horregatik guztiagatik arraroa deitzen zioten herrian.

Literaturarendako, antza denez, asmakizunez betetako eleberri klasikoa utzi zuen dohaintzan: *Gailur ekaiztsuak*: bere garairako oso modernoa den eleberria omen da, estrukturan eta narrazioan berritasun handiak ekarri zituelako. Eta eleberriak, diote jakitunek, badu biografiaz asko...

Emilyren papera Emma Mackey aktoreak antzezten du. Sex Education telesailean ikusi genuen Mackey, Maeve neskato bihurriaren paperean. Pelikula honetan oso interesgarria da aktorea beste erregistro batean ikustea, garai bateko Maeve viktoriarren paperean hain zuzen. Bada harrobia zinema ingelesean.





Other Parents (2019): Guraso perfektuak?

HBO

Bi denboraldiko komedia alemana, ZDF kateak ekoitzia, orain HBOn ikusgai.

Mocumentary edo dokumental faltsu moduan grabatutako telesail honek mendebalde izenez ezagutzen dugun munduaren parte honetan geroz eta orokorragoa den fenomeno bati buruz dihardu: alemanez *Helikoptereltern* edo guraso helikopteroak izenez ezagutzen dena: haurraren inguruan bueltaka dabiltzanak, betiereko babesa emanez.

Noski, telesail honek muturrera eramaten du joera hori: Alemaniako guraso talde baten ekimena kontatzen du; haiek haur-eskola bat sortzea erabaki dute, inguruan dituzten haur-eskolek ez dituztelako haien espektatibak edo beharrak asetzen. Izan ere, a zer nolako

espektatibak dituzten! Haur-eskolak izan behar du jasangarria, begetarianoa (ala beganoa?), inklusiboa, Yoga gela batekin (baina hori haurrak mugatzea litzateke, hobe funtzio anitzeko gela, ezta?), biodinamikoa baina aldi berean denak ongi planifikatuta behar du.

Guraso horiek sortutakoa Kolonia hiriko auzo gentrifikatuenetako batean dago eta gurasoek lanbiderik originalenak dituzte, hau da, diru eskasia usaindu ere egiten ez dute: publizistak, abokatuak, produktoreak, influencerrak ditugu... kontua da predikatzen duten hori ez dutela ezta haiek ere betetzen: noizean behin mcdonalsera joan daitezke haien apetei lasaialdia emateko, besteak beste... Ados, Koherentzia mantentzearena oso zaila da, baina koadrila honena pasada bat da!

Familia perfektu izateko presioa azaleratzen du istorioak, baina, gizarteak ala norberak bere buruari ezarritakoa? Zirrikiturik erakutsi nahi ez duen guraso talde honek, elkarri haginka aritzen dena, gaitutuko al du haien artean (edo haien barruan) sortuko den arrakala?



Mai neva a ciutat (2017): Tokian tokikoaren aldeko aldarria.

Filmin eta Youtube

Hiru denboraldiko telesaila, IB3 (Balearretako telebista publikoak) ekoizitakoa, Filminen ikusgai. Eta baita Youtuben ere, IB3ren kanalean. Neus, Londresen zenbait urtez kazetari musikal moduan lan egiten saiatu ondoren, jaioterrira itzuli da. Jaioterria, hala ere, ingeles, aleman,

belgikar, frantses, espainolek eta abarrek udaz uda gainezka jartzen duten lurraldea da, Mallorca, zehazki, Palma hiriburua. Hasieran, kostako zaio berriz integratzeko prozesuan aurrera egitea: hogeitik gora urte zituztela "utzi" zituen lagunak, garai batean festazaleak, lagunarte zaleak... orain burges dekadente bihurtu direla iruditzen zaio Neusi. Garai batean, puri-purian zegoen hiriko eszena lausotzen joan da... Kontua da, bertan geratu direnak

hain zuzen dira hori nolabait bizirik mantentzen saiatu direnak, hainbat gaztek beste Europako hiri *cool*ago edo modernoago batzuetara hanka egin duten bitartean.

Hiri eta herri turistiko eta gentrifikatuen beste aldea erakusten digu *Mai Neva a Ciutat*-ek: beharrezko produktuak erosteko tokirik ez dute auzoan, dena kafetegi garestiez edo *boutique*z beteta baitago, pisu bat alokatzea fantasiatzeko istorio polita bihurtu da... Irlaren edo irlen biztanleriaren aldeko aldarria da telesailan nagusi, hizkuntzaren aldekoa, kulturaren aldekoa, bizitza jasangarri eta duin baten aldekoa...





Ostiral kulturalak, gero eta potenteagoak

Joseba Sarrionandia, Amets Arzallus, Gari (Hertzainak)... Martxoko eta apirileko ostiral kulturalak mamitsu datoz. Baina, ez joan oraindik, geihago dago eta! Horiek dira izenik deigarrenak, bai, baina liburutegitik eta dinamizazio batzordetik prestatzen duten programazioa sorpresaz eta jarduera interesgarritz beteta dator, udaberriarekin batera.

Martxoak 8

Hilabetea abenduan bertan behera geratu zen ekitaldi batekin hasi genuen. Martxoaren 3an Amelia Tiganusek hitzaldia eskaini zigun. Tiganus, *La revuelta de las putas* liburu ospetsuaren egilea da eta borroka feminista bere bizitzaren ardatz bihurtu du, bost urtez pertsonen salerosketaren biktima izan eta sexu-esplotazioa jasan ondoren. Sexu- indarkeriaren, pornografiaren eta prostituzioaren arteko loturei buruz hitz egin zuen eta sexualitate osasuntsua bizitzeko proposamen etikoak azaldu zituen.

Hitzaldia martxoaren 8arekin, hauda, emakume nazioarteko egunarekin lotutako jardura izan zen, eta horretaz aparte, martxoaren 10an

dokumental bat ikusteko aukera ere izango dugu. *Amadas* du izenburua, Marga Gutierrez da zuzendaria, eta Idoia, Pili, Rosa eta Inmaren historia kontatzen da. Laurak ezgaitasunen bat dute, ahalduntze tailer batera joan eta bertan ikusten dugu haien beldur, zalantza eta kezken atzean, badela batzen dituen zerbait sakonagoa: indarkeria. Eta galdera bat beti buruan: maitatuak sentituko al dira inoiz? Eta guk galdera horri protagonisten erantzuna entzuteko aukera izango dugu, haietako bi etorriko direlako pelikula komentatzera.

Gainera, hilabete honetarako DBH 2. eta 3. mailako Larraintzarko ikastetxeko ikasleek erakusketa inklusibo bat prestatu dute: arlo ezberdinetan emakumeen lana

ikustarazteko, 14 erretratu egin dituzte plastikan eta horien biografiak 6 irakasgai desberdinetan landu dituzte. Gainera informazio hori CREENAkoek brailera itzuli dute. Lan handia, beraz. Martxoko lehenengo hamabostaldian ikus daiteke Larraintzarko Gizarte Etxean.

Bestalde, liburutegian, urtero legez, martxoaren 8aren inguruko irakurketen hautaketa bat prestatu dugu.

Kirolaren eguna

Martxoaren 10an eta 11an ospatuko dugu kirolaren eguna edo asteburua, eta hainbat ekitaldi egingo dira bai ostiralean eta baita larunbatean: ibilialdiak, rokodromoa, mahai-tenis partidak... Gure partetik, ostiralean liburu aurkezpen bat eskainiko dugu, *La increíble historia de la pelota vasca* izenekoa, eta jakina, Santiago Lesmes Zabalegi egilearen eskutik. Ilusio berezia egiten digu aurkezpen honek, liburua behin eta berriro gomendatu dugulako aldizkari honetan eta Esan Erran irratian. Euskal pilotaren historia zoragarriari buruzko liburua da, eta pilotaren jatorria, modalitateak eta tresnak, anekdotak, apustuak, erronkak, bitxikeriak, emakumeen parte hartzea, pilotak arte munduan izan duen presentzia eta beste hainbat kontu kontatzen dira





bertan. Izan ere, liburua irudiz betea dago -kartelak, koadroak, pelikulen fotogramak...-. 1200 irudi baino gehiago. Adibidez, artista askok margotu ditu pilotariak, eta literaturan ere egon da presente. Hain zuzen ere, toki hau aprobeztatuko dugu liburu batzuk aipatzeko: *Hiru mosketariak* nobelan, adibidez, Aramisek pilota partida jokatzeko erronka botatzen dio D'Artagnani; edo *Carmen*, Prosper Merimeren eleberri ospetsuenean (agian ez da oso ezaguna, baina protagonistak, *Carmen* eta sarjentuak Etxalarkoak dira) sarjentu horrek dio pasadizo batean: "Pilotan jokatzeko dugunean nafarro dena ahazten zaigu". Horretaz aparte, Pierre Lotiren *Ramuntcho* nobelaren protagonista pilotaria da (egunez, gauez kontrabandista), eta Pio Barojaren *Zalakain abenturazalea* obran partida bat deskribatzen da... horiek guztiak, beste askoren artean.

Bestalde, irudiez gain, hainbat soinu ere entzun daiteke *La increíble historia de la pelota vasca* liburuan, QR eta esteken medioz.

Gogoratu, beraz, martxoaren 10an, 19:00etan, *La increíble historia de la pelota vasca* liburuaren aurkezpena, Larraintzarko bentan. Ultzamako frontoiaren parean, hain zuzen ere...

Bat, bi, hiru!

Musikarentxandada orain. Martxoan bi kontzertu polit izango ditugu, Larraintzarko Bentan egon direnen luxuzko zerrenda -El Drogas, Kutxi Romero, La Chula Potra, Joseba Irazoki...- handitzeko. Lehenengoa da, dudarik gabe, hilabete honetako plater nagusia: Gari, Hertzainak taldeko abeslariaren kontzertua delako. Milaka eta milaka lagun bildu dituen Hertzainak taldearen azken biraren ostean, Gari bere zuzeneko lehen diskoa aurkeztuko du. Oraingo honetan bakarka arituko da eta aski ezagunak diren eta dagoeneko -esaldi mitiko hori- gure bizitzako soinu-bandaren parte diren hainbat abestiz osatutako errepertorio ederraren errepaso egingo du. Hau martxoaren 24an izango da, 19:00etan. Doakoa da eta beraz, adi egon behar da, sarrera librea delako aforoa bete arte...

Eta, bukatzeko, beste kontzertu bat, oso berezi eta interesgarria hau ere: SATXA SORIAZU laukote plays MEGADETH: RUST IN PEACE. *Rust in peace* omen dela Megadeth trash metal taldearen maisulan bat, obra maestra bat, horrela hartzen da, eta laukote hau, Satxaren laukoteak, diskoaren irakurketa originala egiten du, jazzaren egungo lengoaiara egokituz. Satxarekin batera Alejandro Mingot gitarran, Kike Arza kontrabaxuan, eta Dani Lizarraga baterian egongo dira. Martxoaren 31an, 19:00etan.

Apirilean, aurreratu dugun bezala, euskal kulturako beste izen ospetsu batzuk izanen ditugu, hala nola Joseba Sarrionandia edo Amets Arzallus... Baina hori kontatuko dugu hurrengo Pulunpen. Ordura arte, goazen kulturaz goatzera!

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburuazaina



2023ko ilbeltza

2023ko urtarrilean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

IMOTZ Etxaleku

Martin Astitz Azkona, **Marimigeleneko** Iñaki Azkona eta Eguzkiñe Astitzen semea, urtarrilaren 2an jaio zen.



▲ Martin ttiki, Etxalekuko gazteena

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak:

Guk dakigula, ezkontzarik ez da izan.

OHARRA

Irakurle, zure familiako jaiotza, ezkontza edo heriotzaren bat Pulunpen jarri ez badugu, dei iezaguzu lehenbailehen hurrengo Pulunpen zuzendu dezagun.

Heriotzak:

BASABURUA Beruete

Jose Luis Navarro Baztarrika, **Olagaingo** nagusia, ilbeltzaren 5ean hil zen, 81 urtetan.



▲ Jose Luis Navarro, Txibarne

ULTZAMA Auza

Francisco Aizpurua Descarga, **Arotzaren** etxeko nagusia, ilbeltzaren 5ean hil zen, 94 urtetan.



▲ Francisco Aizpurua, Auzako arotza

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

LANTZ

Lorenzo Iraizotz Muskitz, **Alkaseneko** nagusia, ilbeltzaren 3an hil zen 90 urtetan.



▲ Lorenzo Iraizoz, Alkasene

Lizaso

Vicente Iraizotz Larraiotz, **Asarneko** nagusia, ilbeltzaren 22an hil zen, 67 urtetan.



▲ Vicente Iraizotz, aspaldiko fotografia batean bere seme Davidekin

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





errigora

martxoak 9 - 29

**Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura**

Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio
birjina estra, kontserbak, arroza, pasta
eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta
ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



**Bete ezazu
despentsa
*urte guztirako***

